

## LEZOTARRAK GERRARAKO PREST

" Dijeron que en 16 del corriente recibieron una carta de la Provincia en la que se decía que había continuamente en estas costas algunos navíos ingleses, y que se podía recelar harían algún desembarco, y que faltaban milicias, y que para atajar esos inconvenientes y hubiera la precaución necesaria para la defensa de la patria y real servicio, levante la compañía prontamente para que esta Universidad esté prevenida para suprimir aviso, al destino que le señalare. "

Lezo, 1742: Udal akta

XVIII. mendean Gipuzkoako semeak libre ziren Espainiako erregearen serbitzutan soldaduzka egitetik. Halere, baziren beraien borondatez probintziatik kanpo gerrara joaten zirenak. Azken hauek Koroaren ordaina jaso ohi zuten irten aurretik. Bestalde, Gipuzkoa zenean eraso jasan behar zuena 18tik 60 urte arterainoko gizonezko guztiak beharturik zeuden armak hartzera. Udal bakoitzak bere konpainia antolatzen zuen. Horrela, nonbaitetik laguntza eskatuz gero berehala joan zitekeen etsaiari aurka egitera. Lezon ere egin zen horrelako altxadarik. Esate baterako 1719.ekoa (aurrerago azaltzen dena) eta 1742.ekoa. Herri bakoitzeko udaletxean armak gorde ohi ziren konpainiak behar bezala hornitu ahal izateko. Hauek dira 1763.ean Lezoko artxiboan gordetik zeuden armak: 26 fusil beraien baketekin, 23 baioneta, 2 alabarda, danborra eta bandera.

1718.ean Felipe V.aren gortean bazegoen Frantziako ejertzitoek Pirinioak gaindituko zituztenaren beldurrik. Espainiaren expantsionismo militarri aurre egiteko asmotan Ingalaterra, Frantzia, Austria eta Holandak Aliantza Laukoitza osatu berri zuten. Nazioarteko egoera larri honek eraginda 1719.ean altxada egin zen

Lezon. Urte hartan horrela osatu zen herri honetako udalbatza: kapitain, Sebastián de Arbelaiz; alferitz, Gregorio de Lasarte menor; laguntzaile, Salvador de Elizondo; sarjentu, Miguel de Aginaga. Eta hain zuzen, korporazio honek jaso zuen 1719.eko urtarrilaren 20an Felipe de Agirreren (Gipuzkoako Junta eta Diputazioetako idazkari, eta Maiestatearen ordezkari zenaren) eskutitza. Lezoko unibertsitateari zuzendutako eskribu hartan 18tik 60 urte arterainoko gizonezkoen alistatzea eskatzen zen. Lezotarrak hilaren 29an bildu ziren agindua bete asmoz. Arratsaldeko ordubietan jende ugari ikus zitekeen herriko plazan: gazte eta nagusi, pobre eta aberats, nekazari eta itsasgizon. Armakin batzu eta esku hutsik besteak. Guztira hirurogeitabat izan ziren alistatutakoak.

- |     |               |                           |
|-----|---------------|---------------------------|
| 1.  | Fusilarekin   | León de Enparan           |
|     | Fusilarekin   | Gregorio de Lasarte mayor |
|     | Fusilarekin   | Pedro de Aurela kapitaina |
|     | Fusilarekin   | Joseph de Elizondo        |
|     | Arkebuzarekin | Ignacio de Ugalde         |
|     | Eskupetarekin | Sebastián de Garro        |
|     | Arkebuzarekin | Asensio de Agirre         |
|     | Eskupetarekin | Tomás de Elizondo         |
|     | Arkebuzarekin | Jerónimo de Agirre        |
|     | Arkebuzarekin | Juan de Lasarte           |
| 11. | Fusilarekin   | Miguel de Igarategi       |
|     | Arkebuzarekin | Juan de Salaberria        |
|     | Arkebuzarekin | Jacobo de Lujanbio        |
|     | Arkebuzarekin | Antonio de Yarza          |
|     | Arkebuzarekin | Miguel de Lujanbio        |
|     | Fusilarekin   | Miguel de Sistiaga        |
|     | Arkebuzarekin | Matías de Irurrieta       |
|     | Arkebuzarekin | Juan de Laborarena        |
|     | Arkebuzarekin | Pedro de Salaberria mayor |
|     | Eskupetarekin | Domingo de Etxagaray      |
| 21. | Eskupetarekin | Domingo de Olaziregi      |
|     | Eskupetarekin | Joseph de Miura           |
|     | Fusilarekin   | Pedro de Aristizabal      |
|     | Eskupetarekin | Domingo de Lasarte        |
|     | Arkebuzarekin | Bautista de Laborarenea   |
|     | Eskupetarekin | Rafael de Martiarena      |
|     | Fusilarekin   | Gabriel de Inurruzun      |
|     | Armarik gabe  | Pedro de Elizondo         |
|     | Armarik gabe  | Juan de Martiarena        |
|     | Armarik gabe  | Gabriel de Urteaga        |
| 31. | Armarik gabe  | Felipe de Ibargoien       |

	Armarik gabe	Salvador de Yarza
	Armarik gabe	Joseph de Iribarren
	Armarik gabe	Rafael de Olabide
	Armarik gabe	Mateo de Olaziregi
	Armarik gabe	Joseph de Salaberria
	Armarik gabe	Francisco de Arpide
	Armarik gabe	Ignacio de Urtizbera
	Armarik gabe	Pedro de Salaberria menor
	Armarik gabe	Francisco de Etxebeste
41.	Armarik gabe	Juan Antonio de Etxeberria
	Armarik gabe	Manuel de Berria
	Armarik gabe	Miguel de Alza
	Armarik gabe	Juan de Zelaia
	Armarik gabe	Joseph de Burutaran
	Armarik gabe	Juan de Sarbide
	Armarik gabe	Bautista de Gartxotena
	Armarik gabe	Miguel de Martiarena
	Armarik gabe	Francisco de Etxeberria
	Armarik gabe	Juan Miguel de Narbarte
51.	Armarik gabe	Joseph de Puy
	Armarik gabe	Juan de Ajesta
	Armarik gabe	Juan de Arpide
	Armarik gabe	Francisco de Arrillaga
	Armarik gabe	Antonio de Agirre
	Armarik gabe	Bautista de Inurruzun
	Armarik gabe	Joseph Ignacio de Etxeberria
	Armarik gabe	Antonio de Etxeberria
	Armarik gabe	Antonio de Puy
	Armarik gabe	Joseph de Zubillaga
61.	Fusilarekin	Juan de Olaizola

Frantsesak sartu ziren Gipuzkoan. 1719.eko maiatzean Hondarribia setiaturik zuten. Hilaren 16an Berwick dukeak bere ejertzitoarekin batera hiriko harresietan sartzea lortuko zuen. Baina lezotarrek ere jasango zuten frantses tropen iristea. Horrela 1719.eko maiatz-ekain aldean frantses tropek Lezo armaz hartu zuten. Eta hori nahikoa ez bazan ejertzittoa bertan kantonaturik geratu zen. Zama astunegia hain herri txikiarentzat. Lezori kalte asko ekarriko zion egoera honek. Ekainaren 16an frantses soldadu bat hil zen eta bertako hilerrian eman zioten lurra. Uztail aldean Donostia erori zen Berwicken eskuetan. 1721. urteraino frantsesek ez zuten probintziatik alde egingo.